

#EGIN ETA ZABALDU!



IRUDIA: Atera argazki bat, bakarka edo talde txikitan, hori bai, osasun-neurri guztiak errespetatuz, agurtzeko eskua altxatuz. Idatz ezazu zure esku-azpian, ondo ikusteko moduko hizkiekin kanpainaren leloa **#HERRIKIDE**.

TESTUA: Testu labur bat gehitzen baduzu, ez dadila Twitter-ek esaten dituen 280 karaktere baino luzeagoa izan (hashtag-a barne). Horra hor adibide bat.



#HERRIKIDE



Zabaldu sare sozialetan! Partekatu zure argazkia sare sozialetan **#HERRIKIDE** hashtag-arekin.

KARITATE EGUNA 2021



CARITASGIPUZKOA.ORG

KARITATE EGUNA 2021

Karitatearen Egunean gure harremanak birsortu behar ditugu, goiari eusteko eta modu berri batean elkar zaintzeko. Frantzisko aita santuak gure begiradan eta gure keinuetan **adeitasuna berreskuratzea** aipatzen du, besteak entzuteko eta hartzeko jarrerari dagokionez.

Kristau-komunitate gisa, fedearen lekukotasuna Jesusen hitzak gure egitea da, **hartu eta jan, hartu eta edan**, Bizitzaren otordua partekatzea da, eta kontsolamenduaren, hatsaren, salaketaren eta itxaropenaren ikur izatea gizarte hautsi eta zauritu baten erdian.

Gaur eskuak, keinua eta begirada luzatzera gonbidatzen zaitugu.

Gaur, are eta Jainkoaren Herri izatera gonbidatzen zaitugu, munduarekin topo egiten duena.

"Eutsi, lagundu eta elkarri aurrera begiratzen lagunduko duen komunitate bat behar dugu. Zer garrantzitsua da elkarrekin amets egitea!"

Francisco, Fratelli tutti 8



Aldatu zure bizitzeko modua.

1 Hurbiltasuna eta prestasuna landu. Egin zaituz bizilagun, egin bat beste pertsona eta taldeekin, ausartu zaituz ematera baina baita eskatzera ere, elkarrekiko interdependentzia horrek anaitasuna sortzen baitu.

Aldatu zure begirada.

2 Samariar onak egiten duen bezala, gerturatu zure begirada errealitatera. Ezagutzeak eta izendatzeak errukiari bihotza zabaltzen dio, zure bide berean dagoenari entzun, jaramon egin eta sendatzeko.

Partekatu zure denbora.

3 Bihotza maitasunari benetan irekiz bizi. Eskertu, bedeinkatu, gozatu naturaz, eta bihurtu zure bizitza alabantza; partekatu zure alaitasuna, bat egin mina eta tristurarekin, egin zaituz gertuko pertsona bat. Orainaldia, partekatzeke unez josita dago.

Ez pasa gelditu gabe.

4 Konpromisoa hartu, eta pertsona guztien duintasuna eta justizia alde ahal den guztia egitea, eskatzen du Jesusen jarraitzaile izateak. Bizi guztiaren jakitun, eta bilatu koherentzia zure bizitza pertsonalean eta beste pertsona batzuekin hartzen dituzun erabakietan. Gu partekatu batean oinarritzen dira aldaketak.